

### **HAUR ETA NERABEEK ERE ESKUBIDEAK DITUZTELAKO!**

Hezkuntza arloan duela 2 urtetik hona hainbat eta hainbat neurri murriztaile izan ditugu (konfinamenduak eta protokoloak tarteko). Hezkuntzako profesional eta arduradunok 2 urte hauetan presioa, beldurra, ardura, barne-borrokak... sentitu ditugu, inoiz baino gehiago. Eta orohar, isiltasuna izan dugu nagusi, barne mailan zein kanpora begira.

Lanbide eta bokazioz landu eta hezi behar ditugun oinarrizko balioak alboratu egin ditugu, besteak beste, Oinarrizko Hezkuntzaren xede diren hauek (Heziberri):

- “Pertsonaren **garapen integrala maila guztietan**: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala, estetikoa eta espirituala”
- “Motibatzea eta prestatzea, bizi osoan zehar ikasten eta prestatzen jarraitu ahal izan dezan”.

Gainera, gure jardunean ezin urra ditzakegu Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1959ko azaroaren 29an egindako **Haurren Eskubideen Aldarrikapenean** finkatu zituen haurren eskubide unibertsalak. Horietako batzuk, hauek dira:

- Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen
- Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.
- Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

Horrekin batera, Aldarrikapenaren 3.artikuluak dio: “ Haurren **interes gorena** Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan haurren interesak lehentasun osoa izango du.... “

Aipatutako neurriek (musukoa, burbuilak, distantzia, eta kontaktuagatiko zein sintomarik gabeko berrogeialdiak), ordea, hankaz gora jarri dituzte berez dagozkigun ardura zein jardunbideak. Eta kalteak eragin dituzte haur zein nerabeen funtsezko eremuetan eta kaltea eragiten jarraitzen dute euren garapen integrarean:

- **Arlo fisikoari** dagokionez, neurriek, inmunitate-sistemaren narriadura eragin dute eta eragiten darraite. Honek epe labur eta luzera gaixotasunak garatzeko joera eragiten du, horietako asko Covid 19 sindromeak eragingo lituzkeenak baino larriagoak. Aurrez zeuden hainbat patologien larritzea gertatu da, batez ere arnasketarekin lotutakoak eta neurologikoak.
- **Arlo sozialean**, deshumanizazio prozesu bat gertatu dela uste dugu, Gorputz-kontaktua, naturaltasuna eta interakzioetan espontaneotasuna gogorki desagerrarazi baitira. Horrek enpatiaren garapena oztopatu dezake, bazterketa eta isolamendua ere areagotuz.
- **Arlo psiko-emozionalean**, Neurri hauek bateraezinak dira pertsonak garapen osasuntsua izateko asetu beharreko oinarrizko bi behar hauekin: afektibitatea (gertutasuna eta kontaktu fisikoari lotuta) eta segurtasuna (konfiantzan garatzen da. Neurriek eragindako kontrolaren kontrakoa). Frustrazioa, amorrua, etsipena, tristura eta antsietatea areagotu dira, autonomia, autoestima eta segurtasunaren kalterako. Garapen kognitiboan ere, moteltzea somatzen dugu ikastetxeetan. Metodologia aktiboak, talde-jarduerak, jolas-dinamikak....bateraezinak baitira neurriekin.
- **Hizkuntzaren garapenean eta komunikazioan**, musukoak komunikazio arazoak areagotzen ditu bai ahozko hizkuntzaren garapenean (eta ondorioz irakurketa-idazketa prozesuan) eta baita ez-ahozko komunikazioan (eta ondorioz emozioen identifikazio eta ulermenean) ere.

Ondorio horiek, bete betean eragiten dute aurrez aipatu ditugun eta hezkuntzaren ardatz diren zeharkako kompetentzietan. Baita ikaskuntzarako motibazioan ere.

Aipatu ditugun ondorio horien adierazle dira beste askoren artean:

Alde batetik, **Hezkuntza Sailak pandemiaren eragina hautemateko ikasleen artean 2021eko ekainean argitaratutako Diagnostikoak** erakutsitako hainbat datu: (<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2021/diagnostico-del-sistemaeducativo-indicadores-e-incidencia-covid/>):

- *Ikasleen% 72,3 desmotibatuagoa sentitu da ikasteko.*
- *3 ikasletik 2k, ikasleen% 65,4k uste du maila akademikoa jaitsi dela.*
- *Antsietate edo estresa izatearen pertzepzioari edo sentimenduari dagokionez: %18,5 oso identifikatua eta %18,5 nahiko identifikatua sentitzen da. Honek, jakina, autoestimuan eta osasun biopsikosozelean eragina du.*

Eta Beste alde batetik, **Save the Childrenek 2021eko abenduan "Creceer Saludablemente" txostenean**, haurtzaroan eta nerabezaroan Osasun mentalaren eta suizidioaren inguruko azterketa-txostenean aipaturiko honako datu hauek (2017. urteko Osasun Inkesta Nazionalako (ENS) azken datu ofizialekin alderatuta):

- *buru-nahasteak %1,1etik %4ra igo dira 4 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeetan*
- *Portaera nahasteak: %2,5etik %6,9ra igo dira*

Egungo egoeran hezkuntza protokoloak indarrean egoteak **Haurren Eskubideen Aldarrikapeneko eskubideak urratzen ditu, baita haurren interes gorena bermatzearena ere** (*Adingabeen babes juridikoaren inguruko 1/1996 Lege Organikoaren 2.artikuluaren onartua, eta Haur eta Nerabeen Babes Sistemaren aldatetari buruzko 8/2015 Lege Organikoak ordezkatu zuena*).

Hau dena kontutan hartuta euskal pediatrian eskariarekin bat eginez, "Normaltasunera itzulzeko" prozesuan haurrak lehenak izan beharko liratekeela uste dugu. Izan ere, egoera larria dela deritzogu, hein batean gure isiltasunak eta aurretiko prebentzio ezak ere eragindako egoera izanik.

Hezkuntzako profesional eta arduradun gisa horrela dagokigulako, haur zein nerabeek gizartean izan beharko luketen tratua eta lekua zein den hausnartu beharko genuke. Bitartean, orain da unea, egoera larri honi aurre egiten hasteko, ausardiaz eta arduraz.

Gure betebeharra delako ikasleak erdigunean jartzea; euren oinarrizko eskubideen, garapen integralaren eta interes gorenaren alde jardutea.

Hezkuntzaren xedeak lortzeko garatu nahi ditugun konpetentzia horien eredu izan behar dugulako.

Hori guztia hori dela eta, idazki hau gure sinaduraz babesten dugunok, onartzen dugu haur eta nerabeek edozein norbanako bezala eskubideak dituztela. Eta honako eskaera hauek egin nahi dizkiegu Hezkuntza saileko arduradunei:

- **Hezkuntza protokoloak bertan behera uztea, bere osotasunean.**
- **Hezkuntza protokoloei jarraiki hartu diren neurriek haur eta gazteengan eragin dituzten ondorio eta kalteak arloz-arlo aztertzea.**
- **Ondorio eta kalte horiek erreparatzeko eskuhartzeak martxan jartzea.**

OrioHezkuntzaHerrian

